

Ontzigintza suspertzen ari da

Euskal ontzigintza, birmoldaketek eta krisialdiek hainbeste zigortu dutena, poliki-poliki berpizten ari da; gutxienez 2010. urtera arteko lan karga dago. Suspertu den bakarra ez da La Naval izan, ontziola ertainak ere –Muruetara, Zamakona eta Balenciaga– bide beretik doaz.

DANIEL UDALAITZ

ONTZIGINTZAREN sektorea Bilboko itsasadarrean batez ere milaka lanpostu suntsitu zituzten birmoldaketa eta krisialdien ondoren, emeki-emeki berrindartzen ari da. Itxitako Euskalduna historikoaren eta lanpostu gutxitzea izan zuen Sestaoko La Naval ontziolaren krisialdiaren ondoren, buelta dator orain. Suspertzeak ez dio Sestaoko ontziolari bakarrik eragiten, baita gai-nontzeko ontziolai ere: Erandioko Muruetari, Pasaian eta Las Palmasen lantegiak dauzkan Santurtziko Zamakonari, eta Gipuzkoako Balenciagari. Zuzeneko 10.000 lanpostu inguru eta industria laguntzaileko beste 7.750 lanpostu zeuden 2006an sektorean, hau da, aurreko urtean baino %5 gehiago. Sektorearen kezka, etorkizunera begira, eskulan espezializatuaren falta da; galderagileak, hodilariak eta soldatzaileak behar baitira.

Lana ziurtatuta dago 2011 arte

Euskal Herriko Itsas Foroa (EHIF) eta Euskadiko Itsas Industrien Taldea (EIT), euskal ontzigintzaren sektore osoa hartzen duten bi erakundeak, bat datoz gauza batean: orain dela lau urteko krisialdiaren ondoren, sektorearen egoera oparoa



Birmoldaketa eta krisien ondoren suspertu den enpresetako bat da La Naval.

da gaur egun. Baieztapen horren froga da gaur egungo euskal ontzigintza osatzen duten La Naval, Astilleros Murueta, Astilleros Zamakona eta Astilleros Balenciagak gutxienez 2011ra arteko lan karga ziurtatuta daukatela. Esate baterako, La Navalek ziurtatua dauka 800 milioi euro arterainoko lan karga. Azaroan armadore norvegiar baten tzako gasontzi handi bat atera zen Sestaoko ontziolatik, eta munduko handiena izango den draga bat egin behar du armadore belgikar baten-

tzat. Gainera, Repsol eta Gas Naturalentzat gasontziak eraikitzeako kontratu berriak egiteko aukera dauka.

Atoiontzia eta salbamendurako ontziak egiten dituen Astilleros Zamakonak ziurtatua du 360 milioi euroko lan karga, Santurtzi, Pasaia eta Las Palmasen lantegien artean. Astilleros Muruetak dozena bat itsasontzi egin behar ditu, tartean atunontzia eta Naviera Muruetarentzako hiru ontzi. Astilleros Balenciagak, berriz, kontratu garrantzitsua hitzartuta du talde eskoziar batekin. Aipa-

JON HERNÁEZ / ARGAZKI PRESS

tutako datu ofizial positibo horiek iazko lehenengo zatiari dagozkio; hortaz, baliteke gaur egungo zenbatekoak oraindik hobeak izatea.

Oraindik ez dakigu 2007. urtean datu hobeak lortu diren, baina 2006ko datu ofizialek, eskuragarri dauzkagun bakarrek, oparotasuna erakusten dute: 2006ko fakturazioa 2.300 milioi eurokoa izan zen, aurreko urtekoa baino %14,7 oparagoa. Zenbateko horretatik 1.350 milioi ontziolen zuzeneko negoziotik lortu ziren eta 950 milioi enpresa laguntzaileetatik. Euskal lurretan eraikitako itsasontzien jomuga nagusiak Erresuma Batua, Herbehereak eta Irlanda dira. Ontziolen ekoizpen ponderatuari dagokionez, 66.000 tona gordinekoa izan zen 2006an, eta 33.000koa aurreko urtean.

Astilleros Zamakonak Astilleros Pasaia erosi zuen

Astilleros Zamakonak Astilleros Pasaia erosteko kontratua formalizatu zen 2006an. Eragiketa honek Eusko Jaurlaritzak sektorearentzat sustatutako berrantolamendu eta kontzentrazio planari erantzuten dio. Horrela, Gipuzkoako ontziola operazio base bilakatu zen mota guztietako ontziak, baina batez ere arraste-ontzi, atunontzi, tretzaontzi eta baxurako ontziak konpondu, eraldatu eta mantentzeko operazioetarako.

Bestalde, Murueta eta Balenciaga ontziolek ere itsasontzien eraikuntzako merkatu hain gogor eta zail honetan bere lekua sendotu dute. Biak daude draga eta erabilerari anitzeko ontziak eraikitzeko operazio

garrantzitsuetan murgilduta, Europako eta Asiako beste ontziolen lehiari aurre egin eta nazioarteko lehiaketak irabazi ondoren.

Ez dago eskulan espezializaturik

Euskal ontzigintzaren etorkizunari buruzko aurreikuspen baikorrek aurre egin behar diete errealitateari: Euskal Herrian ez dago eskulan espezializaturik ontzigintzaren sektoreko industria laguntzailearentzat. Batez ere galdaragileak, soldatzai-

Euskal ontzigintzaren gaur egungo lan karga mila milioi eurotik gorakoa da, eta hortik 800 milioi Sestaoko La Navali dagozkio; 2011ra arte gutxienez lan karga ziurtatuta dute Euskal Herriko hainbat ontziolek

leak eta doitzaileak behar dira. Eta, oraingoz, egoera honi irtenbidea emateko, Galizia, Kantabria eta Andaluziako eskulan espezializatura jotzen ari dira. Zaila da egoera.

Ontzigintzaren sektoreko ordezkariak diotenez, urtean 500 espezialistari eman beharko zaie prestakuntza industria laguntzaileak sortzen dituen 2.500 enplegu ingururen etorkizuna ziurtatzeko. Eskulan espezializaturik ezak kezka handia

sortzen du eta, hori dela-eta, Espainiako Industria Ministerioa lehiakortasun plana prestatzen ari da. Eusko Jaurlaritza eta Bizkaiko Foru Aldundia ere zeregin berberean ari dira. Ontzioletako lan espezifikotarako lan indar gaitua lortzea da Industriak 2008an martxan jarri nahi duen plan horrekin lortu nahi den helburuetako bat. Hauexek dira proiektu honen beste helburu garrantzitsu batzuk: enpresa txikiak bateratu edo haien arteko lankidetza areagotzea, finantza gaitasuna hobetzea, eta ikerketa, garapena eta berrikuntza (I+G+B) sustatzea.

Dagoeneko hogeita hamarretik gora enpresak eman dute izena programa honetan. Programa hiru industria motari zuzendua dago: langile gutxi dituzten tokian tokiko enpresa txikiei, erkidego mailako 50 eta 80 langile arteko enpresei, eta ehun langile edo gehiago dituzten enpresei —azken multzo horretan sartzen dira Maessa, Cobra, Cachazas eta Monesa (Montajes Nervión)—. Gaur egun La Navaleko prestakuntza zentroa da arlo honetako espezialistak prestatzen dituen hornitzaile nagusia. Ehunetik gora langile joaten dira bertara ikastera, eta hiru urtean 700eko zenbatekoa gainditzea da helburua. Adituen esanetan, ordea, ekimen berriak behar dira, langile balioaniztunen beharrrak, jarduera honentzat aurreikusi den goranzko joera arinak eta azpijarduera uneetan profesionalek beste sektoreetara egingo duten ihesak urtean 500 bat langileko beharra sorraraziko baitute. ■



TXIKIPOLIT

TXIKIPOLIT JATETXEA

Musika plaza.
20800 Zarautz
Tel: 943 83 53 57
e-posta: info@txikipolit.com
web orria: www.txikipolit.com